

ANTZERKIA. Maiken Beitia eta Joaquin Calderon aktoreek betetzen dituzte rol nagusiak

'Maitalea' estreinatuko dute bihar euskaraz Iruñeko Gaiarre antzokian

Treintaitantos konpainiak prestatu du obra; gaur gaztelaniazko estreinaldia egingen dute



LARRAITZ LIZARAZU

Maiken Beitia aktorea gaztelaniazko eta euskarazko emanaldietan ariko da.

Eduarne Elizondo | **IRUÑEA**

Treintaitantos konpainiak *Maitalea* antzezlanaren estreinatuko du gaur Iruñeko Gaiarre antzokian 20:00etan. Gaurko emanaldia gaztelaniaz izanen da, eta bihar euskaraz emanen du taldeak obra bera. Maiken Beitia eta Joaquin Calderon aktoreek sortu dute Treintaitantos, eta haiek betetzen dituzte obrako rol nagusiak, gaztelaniaz. Euskaraz, Joxean Bengoetxea da Beitiaren oholatza gaineko bi-kotekide.

Harold Pinter idazlearena da *Maitalea* obra. Antzezteko, Bei-

tiak eta Calderonek egokitu dute ingelesezko bertsioa. Obra Emilia Ekaik zuzendu du. Pablo Sanchez aktoreak ere parte hartzen du antzezlanean, euskaraz eta gaztelaniaz.

Obrari buruz mintzatzean, «saillatzea zaila» dela erran zuen Joaquin Calderonek atzo Gaiarren bertan. «Ez da drama; komediatik gertuago dago, baina ez da ohiko komedia ere; umore sotila baliatzen du obrak, bizitzari berari buruz hitz egiteko».

Bizitzari berari buruzko obratzat jo zuen Calderonek, Richard eta Sarah pertsonaien bi-

dez bikote batek bizi ditzakeenak eta senti ditzakeenak islatzen dituelako *Maitalea*-k. «Bikote horren bizipenen haritik, grinengurua ari da obra, zoriontasunaren eta zeloengurua, bikote batek bizi dezakeen edozein egoeraren inguruan, finean».

Aurten sorturiko konpainia

«Obra, nolabait, korapilatsua da, esaldi bakoitzak irakurketa bikoitza duelako; agerikoa dena baino gauza gehiago dago. Ikuslearentzat, hala ere, ez da obra zaila», gaineratu zuen Calderonek.

JOAQUIN CALDERON

Aktorea

«Obra hau ez da drama bat; komediatik gertuago dago, baina umore sotila baliatzen du»

Treintaitantos konpainia aurten sortu da Nafarroan, helduentzako antzerkia egiteko asmoz. «Maiken Beitia eta nik aspaldi genuen elkarrekin lan egiteko gogoia; obra hau aurkitu eta antzezteko taldea sortzea erabaki genuen», azaldu zuen Calderonek.

Beitiarekin orain arte obra prestatzen egindako lanari buruz, «aberasgarria» izan dela erran zuen aktoreak. «Aktore eskuzabala da, eta atsegin handiz murgildu naiz harekin proiektu honetan. Nik azken aldian ikus-entzunezkoen esparrua landu dut; denbora neraman antzerkia egin gabe, baina, Maikenekin, gustura aritu naiz», gaineratu zuen Calderonek atzoko agerraldian, obra aurkeztean.

Konpainiari buruz azpimarratu zuen izenak hainbat gauza adierazten duela: «Hogeita hamar urtetik goitikoak gara biok, eta, aldi berean, adin horretakoa da erakarri nahi dugun publikoa, hogeita hamar urte ingurukoa».

Oraingoz gaur eta biharko emanaldiak prestatu ditu taldeak, baina *Maitalea* beste hainbat tokitan ere eskaintzeko asmoa dute Calderonek eta Beitia.



EGUNKARIA
Rodolfo Walsh.

LITERATURA

Rodolfo Walsh argentinarraren idazlearen biografia aurkeztu dute Buenos Airesen

Rodolfo Walsh argentinarraren kazetari eta idazlearen ingelesezko biografia aurkeztu zuen atzo Buenos Aires hirian Michael McCaughan irlandar kazetariak. *Operación Masacre* obra irakurri ondoren erabaki zuen McCaughanek Walshen biografia idaztea. Liburu horretan, Jose Leon Suarez herriaren gertatutako hilketak lagarrienguruko ikerketa bat egin zuen Walshek. Liburua gaztelaniara itzultzeko negoziazioak hasiak dituzte.

ZINEMA

Zinema solidarioari buruzko zikloarekin hasi da Iruñeko jaialdia

Film laburren lehiaketarekin batera, zinema solidarioari buruzko erakustaldia eskainiko du, ostirala bitarte, Iruñeko III. Zinema Jaialdiak, Nafarroako hiriburuko Carlos III.a zinematokietan. Tartean izanen dira Iñaki Elizalderen *Patesnak* eta Antonio Merceroaren *La cabina*. Egile nafarrei buruzko atzerabegirakoa ere prestatu dute antolatzaileek. Montxo Armendariz eta Helena Tabernaren lanak emango dituzte.

IRAGARKI MERKEAK

943 300 222

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)

Eguna: 15 €
Astea (6 egun): 12 €
2 aste (12 egun): 10 €
Hilabetea (24 egun): 8 €

70 x 33 mm
2 MODULO
(Iparralde)

Egun: 30 €
Astea (6 egun): 24 €
2 aste (12 egun): 20 €
Hilabetea (24 egun): 16 €

33 x 33 mm
MODULO
(Araba-Nafarroa)


Eguna: 15 €
Astea (6 egun): 12 €
2 aste (12 egun): 10 €
Hilabetea (24 egun): 8 €

33 x 33 mm
MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 20 €
Astea (6 egun): 16 €
2 aste (12 egun): 14 €
Hilabetea (24 egun): 9 €

**BIDEO KOPIAK
BIDEOGINTZA
LEHIZE EKOIZPENAK**

IRRATIRAKO KUNAK ETA SOINUKETAK
Pagoaldea Pol. 48 z. 20180 OIARTZUN
tlf: 943491936 lehize@euskalnet.net



**OSTIELA! ALDIZKARIAREN
27./28. ALEAK KALEAN**

Ale matxino edo "gaixtoa" okupazio-espekulazio gaia nagusi. Hitzaren gaiztorako graziaz egin da "aldizkari ez-porno, ez-gogor" hau. "Espekulazioaren aurka, okupazioa!": 20 orritako koaderniloan espekulazioaren egoera eta okupazioaren aukera; Ale Errebel-dean: H. D. THOREAuren Desobediencia zibila; Echelon sare; "Euskaraz" -ri basta ya!; Nortasun andaluziar bindikatioak...; 3 elkarizketa: Beasaingo Pikuondo okupatuekoei, argentinarr irakasle kaleratu bati eta Vahan Sarkisian hizkuntzalari armeniarari. Iñaki Segurrola, Mikel Aramendi, Pablo SASTRE, Sabino ARANA, Uzkian POT, Guy DEBORD, E.A.POE, Iban ZALDUA, Garcia MARQUEZ, Bernardo ATXAGA, e.a.-en testu, errezetak, txantxetak eta trepetak, gaizkideentzat onak direnak.

80 orri guztira, baina prezio berean salgai (3 euro ziztrin) Durangoko Azokan eta E.H. osoko liburutenda/kioskoetan. Urteko harpidetza (4 ale) 12 euro (ale "atzeratuak" erdi-prezioan) Eskatzailearen 2024ko Ordizikiako 131 p.k.-ra edo deitu (edo idatzi) 943-161835 fono.-faxera / ostiela@autovia.com / --www.ostiela.com-- (berritua)